



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko abenduaren 17a

85 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako abelbideei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdientarako ezartzen dituen. Atzera bidalitako osoarekiko emendakina (17. or.).
- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdientarako ezartzen dituen. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakina (17. or.).
- Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Legearen proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakina (17. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Ebazpena, Estatuko Gobernuak premiatzen duena Lankidetzari buruzko Lege proiektu bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernuak hilabeteko epean Nafarroako Toki Administrazioaren egoerari buruzko txosten bat igor dezan. Osoko Bilkurak baztertua (18. or.).
- Mozioa, “Reforma de las Humanidades” deitutako Dekretua gaitzesten duena. Osoko Bilkurak baztertua (19. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernuak premiatzen duena Iruñeko irteeretan Tuteran markatzen duten seinaleak jar ditzan. Osoko Bilkurak baztertua (19. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako abelbideei buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako abelbideei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako abelbideei buruzko Foru Legea

ZIOEN ADIERAZPENA

Lurralde honetako foru araubidearen indarrez, Nafarroak eskumen osoa du abelbideen gainean, horrela adierazita baitago Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.h) artikuluan.

Eskumen historiko hau baliatuz, Nafarroak arautegi ugari onartu ditu abelbideak babestu eta zaintzeko asmoz.

Nafarroako abelbide ia gehienak identifikatu eta mugatzeko egin zen lan jori eta eraginkorra Nafarroako Foru Diputazioak 1924an argitaratu zuen "Libro General de Cañadas" delakoan jasota dago; eta urte batzuk beranduago, Abeltzaintza Sustatzeko Erregelamenduan "abelbideei buruzko xedapenak" bildu ziren. Erregelamendu horren Testu Bategina Nafarroako Foru Diputazioaren 1943ko irailaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi zen.

Lurraldea babestu eta erabiltzeko Eskualdeko Hirigintza Arauei buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legea izan zen Nafarroako abelbideei hirigintza babeserako araubide juridikoa eman zien lege mailako lehenbiziko araua, 29. artikuluan bitartez hain zuzen. Babes araubide horri egun indarra duen Lurraldearen Antolamenduari eta

Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak eman dio jarraipena.

Bestalde, bai Basa Fauna eta haren habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko maiatzaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 75. artikuluan, bai lurzoru ez-urbanizagarrietan barnako ibilgailu motoredunen zirkulazioa arautzen duen otsailaren 14ko 36/1994 Foru Dekretuan, ardibideei buruzko zenbait manu bildu dira, inguruabar sektorialago batetik aztertuak badira ere, ehizaren ikuspuntutik edo ibilgailu motoredunen zirkulazioaren ikuspuntutik hain zuzen; ardibideak esan dugu, hori baita gure antolamendu juridikoan "abelbideak" izendatzeko erabiltzen den beste esamolde arruntago bat, haren baliokidea.

Berriki, Estatuak martxoaren 23ko 3/1995 Legea onetsi du, Abelbideei buruzkoa, oinarritzko araubide juridikoa ezartzen duena.

Kontuan harturik Nafarroan badugula ardibideak arautzeko aspaldiko arautegi bat (1943. urtea baino lehenagokoa), bai eta abelbideak hirigintzaren ikuspuntutik babesteko zenbait foru lege ere, eta ikusirik Estatuak oinarritzotzat hartu duen Lege horrek gure araubide foral eta historikoan izan dezakeen eragina, beharrezkoa da Nafarroako abelbideak babestu eta erabiltzeko araubide berariazkoa testu bakar batean biltzen duen arautegia onestea. Arautegi bakarra, gure administrazio ohiturak eta egungo beharkizunak uztartzen dituena.

Era honetan, Nafarroak duen eskumena erabiliz, Foru Komunitatearen esku jarriko da arautegi erabilgarri bat, gure betiko abelbide, zeharbide, pasabide eta adarrak gorde, zaindu eta behar bezala eta egoki erabiltzen direla bermatzeko.

Abelbideak zaindu eta kontserbatzearen inguruko administrazio eginkizun eta ahalmenak banatuta daude hiru departamenturen artean: Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzakoa, Ekonomi eta Ogasunekoa eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoa. Lehenbizikoari eginku-

zun eta ahalmen horiek dagozkie Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentutik Ingu-
rugi, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza
Departamentura eginkizunak eskualdatzeko abuz-
tuaren 11ko 221/1995 Foru Dekretuaren eta
ondoko arauen bidez egin zen berrantolaketa
administratiboaren ondorioz; bigarrenari, Nafa-
rroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985
Foru Legeak jabari publikoko ondasun higiezin
gainean ematen dizkion eskurantzaren ondorioz,
hori baita abelbideen izaera juridikoa, hirugarren
departamentuari, azkenik, Nekazaritzako Egituren
Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994
Foru Legearen indarrez, lurzati berrantolamen-
duaren arloan, bereganatu dituen ahalmenetatik.

Foru Lege honek lau titulu eta atariko bat ditu.
Atariko honek abelbideen definizioa eman eta
abelbide motak zehazten ditu eta, azkenean,
ondasun horiek jabari publikokoak direla deklara-
zen du.

I. Tituluan, abelbideen gaineko administrazio
ahalmen eta eskumenak bildu eta antolatzen dira,
arloan honetan eskumenen bat duten Foru Komunitateko
Administrazioaren departamentuen jardure-
ketak errespetatu eta harmonizatu nahian. Foru
Legean bildu diren alderdietatik garrantzitsueneta-
riko bat abelbideen mugaketari, desafektazioari
eta trazadura-aldaketari dagokiena da. Prozesu
horietan guztietan segitu beharreko jardunbidea
finkatu da, eta denetan aurreikusi da entzutea
ematea hartu beharreko administrazio ebazpenak
uki ditzakeen interesatu guztiei, beti ere interes
publikoa bermatzearren.

Bestalde, gure egungo bizimodua kontuan har-
turik eta abelbideen egoera ikusita, erabilera eta
jarduera araubide bat aurreikusi da, jarduera bate-
ragarri eta osagarriak egin ahal izateko, ingurugi-
roarekin harmonian, beti ere abereen pasaera
oztopatu gabe eta ondasun horietarako beste foru
arau batzuetan ezarrita dagoen babes araubidea
errespetatuz eta, hala badagokio, osatuz.

Ahalegin berezia egin da lege testu honetan
arau-hauste eta zehapenen sailkapen bat egiteko,
honelako ondasun publikoak ukitzen dituzten bes-
telako zehapen araubideekin eta martxoaren 23ko
3/1995 Legearekin bat datorrena, era honetan
abelbideen inguruko zehapen araubide osoa
arautegi bakar batean bilduko baita.

Azkenik, Nafarroako Abelbideen Sarea eratu
da, Inguirugi, Lurraldearen Antolamendu eta
Etxebizitza Departamentuak kudeatuko duena.
Horren ondorioz, Departamentuak egun dauden
abelbideen kalifikazioa eta berrikuspina egin
beharko du eta, ondoren, sailkatu, abeltzaintza,

natura edo aisialdiaren ikuspuntutik duten intere-
saren arabera.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedea da Nafarroako abelbi-
deen araubide juridikoa ezartzea, Nafarroako
Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko
13/1982 Lege Organikoaren 49.1.h) artikuluan
Nafarroari aitortzen zaion eskumen osoa erabiliz.

2. artikulua. Definizioa.

Foru Lege honen ondorioetarako, abelbideak
izanen dira abereak eramateko erabili izan diren
edo erabiltzen diren bide edo ibilbideak.

3. artikulua. Abelbide motak.

1. Nafarroako abelbideak honela sailkatzen
dira: ardibideak, zeharbideak, pasabideak eta
adarrak. Horiez gain, abelbideei loturiko atsedeng-
une eta ur-askak ditugu, izen horiek adierazten
dituzten erabileretarako direnak.

2. Ardibideak Nafarroako abelbide garrantzi-
tsuenak dira, udako larreguneak eta neguko
artzantzatokiak elkartzen dituztenak. Horien zaba-
lera gehienekoa laurogei metrokoa izanen da.

3. Zeharbideak berrogei metro zabal baino
gutxiago diren abelbideak dira; pasabide eta ada-
rren zabalera, aldiz, hogeita hamar metrokoa da
gehienez.

4. artikulua. Izaera juridikoa.

Abelbideak jabari publikoa duten ondasunak
dira, Nafarroako Foru Komunitatearenak, eta,
horrenbestez, besterenezinak, preskibiezinak eta
bahiezinak dira.

I. TITULUA **Abelbideak mugatzea** **eta administratzea**

I. KAPITULUA **Administrazio ahalmenak**

5. artikulua. Administrazio ahalmen eta esku-
goak.

1. Abelbideei dagokienez, honako ahalmen eta
eskugoak ditu Nafarroako Foru Komunitatearen
Administrazioak:

a) Abelbideen erabilera arautzea eta antola-
tzea.

b) Abelbideen azaleraren osotasuna defendatzea, lur sailen bat abelbideari dagokiolako ustea dagoenean, horren egoera aztertzeko eskubidea eta beharra baititu.

c) Abelbideak sailkatu, mugatu, zedarritu eta desafektatzea eta, behar denean, handitu eta berrezartzea.

d) Abelbideen erabilera publikoa bermatzea, dela abereak eramateko erabiltzen direnean, dela beste jarduera bateragarri edo osagarrietarako erabiltzen direnean.

e) Abelbideak eta abelbideei zuzenean loturiko gainerako elementuak, ingurugiroaren edo kulturaren ikuspegitik baliosak direnak, egoki mantentzen direla bermatzea, beharrezko diren babes eta errestituzio neurriak hartuz.

f) Abelbideak babestu, zaindu eta hobetzeko bestelako jarduketak.

2. Abelbide bakoitzaren erabilera sailkatu eta arautzeko ahalmena Nafarroako Gobernuari dagokio, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak proposaturik, eta jendaurrean jarri ondoren.

Abelbideen egoera eta titulartasunari, horien mugaketari eta desafektazioari buruzko ikerketak egiteko ahalmen eta eskugoak Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagozkio.

Lurzati berrantolamenduak egiteko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokio.

Aurreko zenbakiarekin lotura duten gainerako ahalmen eta eskugoak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagozkio.

II. KAPITULUA

Sailkapena, mugaketa eta zedarritzea

6. artikulua. Sailkapena.

Sailkapena abelbide bakoitzaren izaera, zabalera, trazadura eta gainerako ezaugarri fisiko orokorrak zehazteko administrazio egintza da, deklarazio izaera duena.

7. artikulua. Mugaketa.

1. Mugaketa abelbideen mugak zehazteko administrazio egintza da, sailkapenaren egintzan finkatutakoari jarraikiz.

2. Okupazio, bidegabeko sartze eta lurzati mugakideen zerrenda mugaketa espedienteari erantsi beharko zaio, nahitaez.

3. Mugaketa espedienteari Ekonomi eta Ogasun Departamentuak emanen dio hasiera, ofizioz edo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zein Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskaturik. Hasi ondoren, entzutea emanen zaie kasuan kasuko toki entitatei, lurzati mugakideen jabeen, jakinarazi ondoren, eta ingurugiroa edo abelbideak babesteko helburua duten erakunde edo talde interesatuei. Azken horiei jakinarazteko, iragarkia jarriko da Nafarroan argitaratu eta hedadura handiena duten egunkarietan eta informazio-izapidea irekiko da, jendaurrean hilabetez jartzeko, gutxienez. Mugaketa espedienteari hasiera emateko ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Mugaketa espediente onestea Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagokio. Horren ebazpena interesatuei jakinarazi beharko zaie eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta haren aurka helegitea jarri ahalko da Nafarroako Gobernuan.

4. Onetsitako mugaketa Jabetza Erregistroan jaso dadila premiatuko du Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, hala badagokio.

8. artikulua. Zedarritzea.

1. Zedarritzea administrazio prozedura bat da, abelbideen mugak finkatu eta muga horiek lurra- ren gainean betiko adierazteko xedea duena.

2. Mugaketa onesteko egintza administrazio bidean irimo bilakatu ondoren, abelbidea zedarritzeari ekinen zaio. Horretarako, interesatuei, lurzati mugakideen jabeen eta ukituriko toki entitatei deituko zaie, hamabost egun lehenago gutxienez, zedarritze-lanera bertaratu daitezen eta egoki jutzatzen dituzten oharrak egin ditzaten.

3. Zedarritzeko ekitaldian behar den akta jasoko da, lan horretan parte hartzen duen Administrazioaren teknikariak sinatu beharko duena. Bertan, abelbidearen nondik norakoa adieraziko da, erraz identifikatzeko moduan, eta, halaber, zedarririen kokagunea.

4. Mugarri edo zedarririk harrizkoak izanen dira eta bertan "Abd." adierazgarria idatziko da.

III. KAPITULUA

Desafektazioak eta trazaduraren aldaketak

9. artikulua. Desafektazioa.

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskaturik, abelbideetako zenbait eremu jabari publikotik desafektatu

ahalko ditu, Foru Lege honen II. Tituluan aipatu diren erabilera lehentasunezko, bateragarri edo osagarrietarako ez direnak hain zuzen.

2. Desafektazio espedientea jendaurrean jarriko da hilabete batez eta epe horretan Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu ukituei, toki entitate ukituei, Nafarroako Nekazaritzako Ganbarari, nekazaritzako lanbide erakundeei eta ingurugiroa edo abelbideak defendatzeko helburua duten erakunde edo taldeei entzutea emanen zaie.

3. Desafektatu diren edo desafektatuko diren lurrak Nafarroako Foru Komunitatearen ondare ondasunak izanen dira eta, xedearen ondorioetarako, interes publikoa edo soziala lehenetsiko da.

10. artikulua. Trazaduraren aldaketa.

1. Interes publikoagatik eta, salbuespen gisa eta ongi arrazoitu ondoren, baita interes partikularragatik ere, desafektazioa aurretik eginda edo espediente berean eskatuta, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak baimena eman dezake abelbide baten trazadura aldatu edo desbideratzeko, beti ere azaleraren osotasuna, ibilbide eta trazaduren egokitasun-maila, abereen pasaera eta jarduera horrexekin bateragarri eta osagarri diren gainerako erabilerak bermatzen baldin badira.

2. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak jendaurrean jarriko du hilabete batez trazaduraren aldaketa eta epe horretan Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu ukituei, toki entitate ukituei, Nafarroako Nekazaritzako Ganbarari, nekazaritzako lanbide erakundeei eta ingurugiroa edo abelbideak defendatzeko helburua duten erakunde edo taldeei entzutea emanen zaie.

3. Trazaduraren aldaketa hirigintza planeamendurako, lurraldearen antolamendurako edo lurzati berrantolamendurako tresna bat izapidatzearen ondorioz egin behar baldin bada, aurreko zenbakian aipatu den jendaurreko aldiaren orde besterik informazio bide bat erabiliko da, horrelako hirigintza tresnak tramitzeko berariazko legedian ezarritakoa, hain zuzen.

4. Kasu guztietan, bidearen aldaketa bat proposatzen dutenek beste trazadura bat ere proposatu beharko dute, azaleraren osotasuna, ibilbide egokia, trazaduran etenik egon ez dela, abereen pasaera eta gainerako erabilera osagarri eta bateragarriak alde aurretik bermatu beharko dituen.

11. artikulua. Trazadura herrilanengatik aldatu beharra.

1. Abelbideen lurretan herrilan bat egitea proiektatzen denean, jarduten duen Administra-

zioak bermatu beharko du trazadura alternatiboak mantenduko dituela abelbidearen aurreko ezagarrak, abereen pasaera eta ibilbidean etenik egon ez dela eta gainerako erabilera bateragarri eta osagarriak bidezkoak direla.

2. Abelbideak trenbideekin edo errepideekin gurutzatzen direnean behar adina pasabide presatuko dira, sestra berekoak zein bikoak, abereak laster eta eroso igaroteko modukoak.

12. artikulua. Mugarriak berriz jartzea.

Abelbide baten trazadura aldatzeko espediente irekita, hartarako baimena ematen bada, eskatzailearen ardura izanen da trazadura zaharretik berrira mugarriak eraman eta bertan paratzea, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak mugarriak jartzeko modu eta tokiaren inguruan emanen dituen irizpideei jarraikiz eta, beti ere, onetsi den espedientean adierazten denari lotuz.

II. TITULUA

Abelbideen erabilera eta jardueren araubidea

13. artikulua. Erabileren araubidea.

Abelbideei emanen zaizkien erabilerak Foru Lege honen 2. artikuluan zehazten den definizioaren ondoriozkoak izanen dira. Hortaz, abereen igarobide izateaz gain, hori baita berezko erabilera, jarduera horrekin bateragarri edo osagarri diren beste erabilera batzuetarako ere erabil daitezke, abelbideak kaltetzen ez badira.

14. artikulua. Berezko erabilera.

Abelbideen berezko erabilera abereen pasaera da.

Abere transhumanteek bazkatu, ura edan eta gaua eman ahalko dute libreki abelbideetan, baita ondoko atsedenguneetan ere, transhumantzian daudela.

15. artikulua. Erabilera bateragarriak.

1. Abeltzaintzako jarduerarekin bateragarriak dira, abereen igarotzea eta abelbidea bera kaltetu gabe, egin daitezkeen gainerako erabilera tradizionalak, nekazaritzaren ingurukoak badira eta okupazioaren izaera juridikoa ez badute.

Herrien arteko komunikabideek eta, zehazki, nekazaritzako ibilgailuek eta makineriak errespetatu beharko dute abereak duten bide-lehentasuna eta ebitatu beharko da abereak desbideratu beharra edo pasaera luze geldiaraztea. Abelbideak erabiliko ahalko dira finketara iristeko.

Salbuespen gisa, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimena eman ahalko du nekazaritzarakoak ez diren

ibilgailu motoredunak zirkulatzeko (erabilera berriratzeko eta zehatza izan da hori), salbu eta abereak pasatzen ari direnean eta interes ekologiko edo kulturala duten abelbideetatik igarotzeko denean.

2. Landaketa linealak, haize-babes gisakoak, edergarriak eta antzekoak ere erabilera bateragarriak izan dira, abereen pasaera normala oztopatzen ez duten heinean.

16. artikulua. Erabilera osagarriak.

1. Abelbideen erabilera osagarritzat hartzen dira ibiltzea, paseatzea, zaldiz ibiltzea eta antzekoak eta motorerik gabeko ibilgailuetan zirkulatzeta, beti ere abereen bide-lehentasuna errespetatzen badute.

2. Erabilera osagarri horiei dagokienez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aldi baterako mugapenak ezarri ahalko ditu, erabilera horiek ekosistema sentiberekin babesarekin bateraezinak direnean edota sute arrisku handiko basoak edo espezie babestuak daudenean.

17. artikulua. Babes araubidea.

1. Abelbideen babes araubidea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legearen 35.3 artikuluan ezarritakoa izan da.

2. Abelbideak egokitu, zaindu edo hobetzeko lanei loturiko jarduera, eraikin eta instalazioetarako baimena eman ahalko da.

3. Halaber, landaketa eta basoberritze lanak baimenduko dira, abelbideetarako aurreikusi diren erabilerekin bateragarriak baldin badira.

18. artikulua. Aldi baterako okupazioak.

Interes publikoarengatik eta, salbuespen gisa eta arrazoitzen bada, interes partikularrengatik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, hilabetez jendaurrean jarri ondoren, baimena eman dezake abelbideen aldi baterako okupazioak egiteko edo lur horietan instalazio muntagarriak paratzeko, okupazio edo instalazio horiek abereen pasaera oztopatzen ez badute eta gainerako erabilera bateragarri zein osagarriak galarazten ez badituzte.

Edozein modutan ere, aldi baterako okupazio horiek bost urtetik beherakoak beharko dute izan, ondoren berritu daitezkeen arren.

Okupazioa aldi baterako izan da dela eta lurra bere jatorrizko egoerara itzuliko dela bermatzeko, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eskatu ahalko du okupazio-

gileak banku abal bat jar dezan, edo onartuta dauden etaririk beste edozein berme-mota, instalazioen balioaren ehuneko hogeia adinakoa.

19. artikulua. Administrazio baimenerako prozedura.

Lege honen 17 eta 18. artikuluetan aipatu jarduerak baimentzeko prozedura Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 42. artikulutik 44.era bitartean araututa dago.

III. TITULUA

Arau-hauste eta zehapenak

20. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Foru Lege honen aurkako egintzek eta ezegiteek administrazio izaerako erantzukizuna sortuko dute, erantzuleei bide penalean, zibilean edo bestelako batean eska dakizkiekeena galarazi gabe.

2. Arau-haustean parte hartu dutenen parte-hartze-maila norainokoa izan den jakiterik ez dagoenean, erantzukizuna solidarioa izan da, erantzukizuna beren gain hartu dutenek beste parte-hartzaileen aurrean errepetitzeko duten eskubidea galarazi gabe.

3. Ez da inolaz ere bi zehapen ezarriko egintza berberarengatik, babestu nahi den interes publikoa berdina baldin bada, baina horri loturiko beste egintza edo arau-hausteengatik datozen erantzukizunak eskatu beharko dira.

21. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

1. Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

2. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Abelbideen mugak adierazteko erabiltzen diren mugarri, zedarrak edo adierazgarriak, orohar, aldatzea.

b) Abelbideetako lurretan baimenik gabeko eraikuntza edo obrak egitea, edozein motatakoak direlarik ere.

c) Abereen pasaera edo onartu diren erabilera bateragarri edo osagarrietaririk edozein egitea erabat tratatzen duten oztopoak jartzea edo berezko erabilera horietarako traba diren jardueretan aritzea.

d) Abelbideei kaltea edo galerak ekartzen dizkieten egintza edo ez-egiteak, haien erabilera galarazten dutenak eta, halaber, abelbideak okupatzea bidezko den administrazio titulua izan gabe.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Abelbideetan luberritze edo landaketa lanak egitea baimenik gabe.
- b) Abelbideen mugapean isurkinak edo hondakinak botatzea.
- c) Abelbideetako arbolak bota edo moztea baimenik izan gabe.
- d) Abelbideetan aldi baterako instalazioak jarri edo obrak egitea baimenik izan gabe.
- e) Foru Lege honetan aurreikusi diren polizia, ikuskapen edo zaintza lanak oztopatzea.

4. Hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Abereen pasaera eta gainerako erabilera osagarri eta bateragarriak oztopatu gabe ere, abelbideei kaltea edo galerak ekartzen dizkieten egintza edo ez-egiteak.
- b) Administrazio baimenetan ezartzen diren baldintzak ez betetzea.
- c) Foru Lege honetan zehazten diren debekuak, erabat edo zati batean, ez betetzea eta, horien arabera, derrigorrezkoak diren jarduketak ez egitea.
- d) Abereek erabili ezin dituzten abelbideetako fruitu edo produktuen probetxamendu baimendu gabea.

22. artikulua. Zehapenak.

- 1. Arestian aipatu arau-hauste hauengatik honako isun hauek ezarriko dira:
 - a) Arau-hauste arinak, 10.000tik 100.000 pezeta bitarteko isuna.
 - b) Arau-hauste larriak, 100.001etik 5.000.000 pezeta bitarteko isuna.
 - c) Arau-hauste oso larriak, 5.000.001etik 25.000.000 pezeta bitarteko isuna.

2. Zehapenak jarriko dira arau-hausteak izan dituen garrantzi eta ondorioen arabera, pertsona eta ondasunen segurtasunari dagokionez, eta kontuan hartuko dira, gainera, ingurugiroaren gaineko eragina, erantzulearen inguruabarrak, norainoko errua duen, berrerorlea ote den, norainoko partehartzea izan duen eta atera duen onura.

23. artikulua.

- 1. Administrazio arau-hausteak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko buruak ezarriko ditu.
- 2. Bidezko diren zehapen penal edo administratiboak galarazi gabe, arau-hausleak egindako

kaltea konpondu beharko du. Konponketaren helburua izanen da, ahal den neurrian, abelbidea arau-haustea egin aurretik zegoen egoera berberean uztea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, subsidiarioki, kalteak konpondu ahalko ditu arau-hauslearen kontura. Dena den, arau-hauslea beharturik dago eragin dituen kalte eta galera guztiak ordaintzera, kasuan kasuko ebazpenean zehazten den epearen barruan.

3. Abelbideen araubide juridikoaren aurkako arau-hausteen zehapen prozedura eta zehapenen murrizketa Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko zutailaren 4ko 10/1994 Foru Legea garatzeko apirilaren 3ko 85/1995 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamenduan xedatutakoari lotuko zaizkio.

4. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko buruaren eskumena da geroago eman daitekeen zehapen-ebazpena eraginkorra izan dadin behar diren kautelako edo behin-behineko neurriak hartzea.

IV. TITULUA**Nafarroako Abelbideen Sarea****24. artikulua.** Sorrera eta kudeaketa.

- 1. Nafarroako Abelbideen Sarea eratu da. Nafarroan barna doazen abelbide guztiak hartuko ditu.
- 2. Nafarroako Abelbideen Sarearen kudeaketa Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eskumena da.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak emateko.

Bigarrena. Abelbideak hirigintza planeamenduen arabera hiri lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarriztat hartuta dauden lurretatik igaroten badira, planeamendu horretan behar diren neurriak zehaztu beharko dira, ahal den neurrian, eraikinek edo instalazioek lur hori okupatu ez dezaten eta, halaber, trazaduran etenik egonen ez dela eta ibilbidea egokia dela bermatzeko.

Hirugarrena. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako abelbideen azterketa orokorra eta sailkapena eginen ditu, egun dituzten erabilera eta ezaugarrien arabera. Sailkapen horretan hiru talde eginen dira: abeltzaintzarako interesa duten abelbi-

deak, interes naturalekoak eta aisialdirako interesekoak.

Laugarrena. Foru Lege honetan aurreikusita ez dagoen orotan, Abeltzaintza buruzko martxoaren 23ko 3/1995 Legea aplikatuko da.

Xedapen indargabetzailea

Nafarroako Foru Diputazioak 1943ko irailaren 15eko Erabakiaren bidez onetsi zuen Abeltzaintza Sustatzeko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 77.etik 111.era bitarteko artikulua indarrik gabe utzi dira eta, halaber, Foru Lege honetan

ezarritakoari kontra egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapenak.

Azken xedapenak

Lehenena. Ahalmena ematen zaie Ekonomi eta Ogasun kontseilariari eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzaten.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra

Nafarroako Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nekazaritzako politikak aplikatzeak galdetzen du, gero eta gehiago, Administrazio Publikoek informazio aski izatea nekazaritza arloa eta honen bilakaera objektibotasunez ezagutzeko behar ditzuten datu estatistikoei buruz, nekazaritza eta abeltzaintza antolatze eta haien planifikazio ekonomikoa egiteko.

Laguntzen tramitazioa gero eta konplexuagoa da, bai Europako Batasunak finantzatuak, bai nazionalak eta autonomikoak ere eta, hortaz, beharrezkoa da nekazaritza ustiatzearen eta haien titularren ezaugarriak zehatz-mehatz ezagutzeko. Horrek berekin dakar beste hauek ere jakitea: ustiatzearen orientabide tekniko-ekonomikoa (O.T.E.), titularren dedikazioa, erabiltzen den eskulana, ustiatze errenta, etab.

Beraz, nahitaezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat nekazaritza ustiatzearen definitzeko tresna bat sortzea eta ezarritako onurak emateko lehentasunezko irizpideak jar-tzea, Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak antolatze eta planifikatzeko politika eraginkor eta koherente baten barrenean.

Bestalde, ekonomia antolatze eta haren plangintza orokorra koordinatzeko behar diren oinarriak edo neurriak arautzeko dituen eskumenen arabera, Estatuak diktatu du nekazaritza ustiatzearen gaurkotzeari buruzko oinarriko legea, uztailearen 4ko 19/1995 Legean bildua dagoena. Lege horretan bildu dira, orobat, beste eskumen-titulu batzuetan oinarriturik, errentamenduen legeko araubidearen aldaketa eta landa finka batzuen zatiezintasuna, beste xehetasunen artean. Bertan ezarri da, halaber, lehentasunezko ustiatzei zenbait onura fiskal ematea. Horren aplikazioa Nafarroako foru tributu araubidearen menean dago, aipatu Legearen Xedapen Gehigarrietako bigarrenaren arabera, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45.2 artikuluari jarraikiz.

Bada, nekazaritzan eta abeltzaintzan Nafarroak dituen eskumenak abiapuntu harturik eta bere tributu eta zerga araubidearen gainean, Foru Lege honek bi bide ezartzen ditu gure Komunitateko nekazaritza arloa sustatzeko eta antolatze: Nekazaritza ustiatzearen Erregistroa, Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza ezagutzeko tresna administratibo gisa, gerora arlo horiei laguntzeko arazoizko politika baten plangintza egin ahal dadin, eta guztiondako legeriak ezarritako zerga

onurak zabaltzea, eta hobetzea, behar bada, Nafarroako nekazariei eta, batez ere lehentasunezko nekazaritza ustiatzei eta nekazari gazteei.

Foru Legea lau Titulutan eratu da:

* Atariko Tituluak Foru Legearen xedeak ezartzen ditu, baita haren aplikazio eremua ere, gehienbat Foru Komunitatearen lurraldean diren nekazaritza ustiatzei guztietara hedatzen dena.

* I. Tituluak Nafarroako Nekazaritza ustiatzeien Erregistroaren baldintzak eta betebeharrak finkatzen ditu. Bertan, lehentasunezko nekazaritza ustiatzeien katalogoa eta nekazari gaztearen izaera bereizten dira, lehenik, eta gainerako nekazaritza ustiatzeien katalogoa, gero. Erregistroan sartzea aldeak halaxe eskatuta egiten da; hala ere nahitaezkoztat jotzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura diren onura eta laguntzak jaso ahal izateko. Jasotako datuen pribatutasuna bermatua dago.

* II. Tituluak lehentasunezko nekazaritza ustiatzeiek, familian nahiz elkar lanean landuek, behar dituzten ezaugarriak ezartzen ditu.

* III. Tituluan ondoko hauek finkatzen dira: nekazaritza ustiatzeiendako Nafarroan ezarri diren sustapen laguntzak jasotzeko lehentasunak, jabetza hartzeko zerga onurak, batez ere gazteentzat, arloa gazteagotzeko (horregatik lehenbiziko instalazioak ere sustatu nahi dira); azkenik, zerga araubide berezia ezartzen da landa finken eta nekazaritza ustiatzeien eskualdatzeak dakartzan ondare handitzeetarako.

ATARIKO TITULUA Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedeak ondoko hauek dira:

a) Nekazaritza ustiatzeien Erregistroa sortzea, behar den informazioa jarraian, integratua eta eguneratua eskuratzeko tresna publiko gisa, Nafarroako nekazaritza arloa antolatzeke eta haren plangintza ekonomikoa egiteko, nekazaritza egiturak gaurkotzeko politika egokia garatzeko, baita informazio orokorreko ondorio estatistikoetarako ere.

b) Nafarroako nekazaritzako ustiatzeien ezaugarriak definitzea.

c) Laguntza publikoak jasotzerakoan lehentasuna izateko nekazaritza ustiatzeiek behar dituzten baldintzak zehazteko datuak izatea.

d) Nekazarien elkarteratzea bultzatzea, nekazaritza ustiatzeiek behar adinako neurriak izan ditzaten.

e) Nekazari gazteen sarrera erraztea, ustiatzei bideragarrien titular gisa.

f) Lurraren merkatuaren mugikortasuna areagotzea, bai jabetzan, bai errentamenduan.

g) Lehentasunezko nekazaritza ustiatzei aplikatu ahal zaizkien zerga onuren markoa ezartzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru Lege hau aplikatuko zaie gehienbat Foru Komunitatearen lurraldean diren nekazaritza ustiatzei.

3. artikulua. Definizioak.

Foru Lege honen ondorioetarako, ondoko hauek dira definizioak:

1. Nekazaritza jarduera: nekazaritzako, abeltzaintzako eta oihangintzako produktuak eskuratzeko behar den lan multzoa.

2. Nekazaritza ustiatzeia hau izanen da: nekazaritzako ekoizpenerako _funtsean, merkaturatzeko_ titularrak edo kotitularrek enpresarialki antolatutako ondasun eta eskubideen multzoa, beti ere unitate tekniko-ekonomikoa osatzen badu.

3. Ustiatze gikiko elementuak: landa ondasun higiezinak eta nekazaritzan jarraian aprobetxatzen diren beste guztiak; bizitexea bere tegiekin; ustiatze gikian eta berari lotuak diren nekazaritzako eraikin eta instalazioak, baita industriakoak ere, eta azientak, makinak eta lanabesak, horien aprobetxamendua eta erabilera titularrari badagozkio jabetzan, errentamenduan, erabiltzeko eta gozatzeko eskubidean edo jabeak titularrari utzitakoak badira. Ustiatze gikiko elementuak dira, orobat, titularrari dagozkion eta ustiatze gikari lotuak dauden eskubide eta betebeharrak guztiak.

4. Ustiatze gikaren titularrak: nekazaritza-jarduera burutzen duen pertsona fisikoa nahiz juridikoa, ustiatze gikia osatzen duten eskubideak eta ondasunak enpresa-irizpideekin antolatzen dituena, eta ustiatze gikia kudeatze gikiko erantzukizun zibil, fiskal eta sozialak eta ekonomia-arriskuak bere gain hartzen dituena.

5. Nekazari profesionala: nekazaritza-ustiatze gik baten titular izanik, bere errenta osoaren 100eko 50a nekazaritza-jardueretatik edo jarduera osagarri batzuetatik lortzen duena, baldin eta zuzenean bere ustiatze gikian burutzen duen nekazaritza-jardueretatik lortutako errenta ez bada guztirako errentaren 100eko 25a baino beheragokoa eta nekazaritzako lanetan edo jarduera osagarrietan

emandako denbora bere lanaldi osoaren erdia baino goragokoa bada.

Ondorio horietarako, hurrengo hauek dira jarduera osagarriak: titularrak, hauteskunde publikoan aukeratua izateagatik, ordezkari osatutako erakundeetan parte hartzea eta bertan egotea, baita sindikatu, kooperatiba eta profesionalen ordezkari organoetan ere, nekazaritza arloarekin loturik badaude. Orobat bere ustiategiko produktuak eraldatzeko eta zuzenean saltzeko jarduerak, naturguneak kontserbatu eta ingurugiroa babestekoak eta bere ustiategian egiten diren jarduera turistiko, ehizako eta eskulanekoak.

6. Nagusiki nekazaria: guztirako errentaren 100eko 50a bere ustiategian burutzen den nekazaritza-jardueratik ateratzen duen nekazari profesionala, ustiategiko jarduerekin lotuta ez dauden lanetan emandako denbora guztirako lanaldiaren erdia baino gehiago ez bada.

7. Nekazari gaztea: hemezortzi urte beteak izanik oraindik berrogei bete ez dituen pertsona eta nekazaritzan jardun edo jarduteko asmoa duena.

8. Lur gutxiko nekazaria: bere nekazaritza ustiategia neurri europarreko (NEU) 12 unitate baino gutxiagokoa duen nagusiki nekazaria, guztirako errenta erreferentziako errentaren 100eko 75aren adinakoa edo txikiagoa badu.

9. Lanaldi partzialeko nekazaria: nekazaritza ustiategi baten titularra den pertsona fisikoa. Ustiategian ez du lanaldiaren bostena baino gutxiago sartu behar, ezta lanaldi osoaren erdia baino gehiago.

10. Nekazaritzako lan unitatea: nekazaritzako lanetara urtebetean egun osoz pertsona batek egiten duen lana.

11. Lan unitatearen errenta: nekazaritza-ustiategian sortzen den ekonomia-errendimendua, lan unitateari egotzen zaiona; honela ateratzen da: ustiategian erabiltzen diren nekazaritzako lan unitateen kopurua, zati, ustiategiaren gaundikin garbia edo marjin garbia ordaindutako lansarien zenbatekoarekin batuz ateratzen den zenbatekoa.

12. Erreferentziako errenta: Espainian nekazaritzakoak ez diren lansari gordinen buruzko indikatzailea. Horien zenbatekoa urtero zehaztuko da Europako Batasunaren Arauekin bat eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako lansariei buruzko datuak kontutan hartuta.

LEHENBIZIKO TITULUA

Nafarroako nekazaritza ustiategiaren erregistroa

4. artikulua. Sorrera.

1. Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa sortzen da, Foru Lege honetan finkatutako baldintza eta ondorioekin.

2. Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa zerbitzu administratibo eta doako gisa eratu da. Bere xedeak dira Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza ustiategiak inskribatzea, lehentasunezkoak diren edo ez diren zehaztea eta lehentasunezkoen egiaztagiriak ematea, Foru Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokio Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroaren kudeaketa.

4. Nekazaritza Ustiategietako datuei dagokienez, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37 artikuluan ezarritakoei jarraituko zaie.

5. artikulua. Inskriba daitezkeen egintzak.

1. Erregistroan inskribatuko dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza ustiategiak, beraien titularra edozein dela ere.

b) Ustiategian ematen diren funtsezko aldaketak.

2. Inskripzioan ondoko hauek aipatuko dira:

a) Ustiategiaren titularra edo titularrak eta beraien nortasun identifikazioa edo talde edo sozietatea eratu zeneko agiria, titularrak nortasun juridikoa badu.

b) Titularren edo titularren lanbide kualifikazioa, zein famili ustiategia izan, zein kideena, ustiategi elkartua bada.

c) Gizarte segurantzaren afiliatua izatearen agiria, zein famili ustiategia izan, zein kideena, ustiategi elkartua bada.

d) Ustiategiaren ezaugarri orokorrak, bere egoera eta ekoizpenaren orientabidea.

e) Berari lotutako lurak, edozein dela ere edukitza erregimena, ondoko hauekin: katastroko identifikazioa, azalera eta izaera, ureztalurra nahiz lehorrekoa, belardia nahiz oihana, larrea nahiz arboladia.

f) Nekazaritzako eraikin eta instalazioak, baita industri izaera dutenak ere.

g) Bizitetxea nekazaritzarako bere tegiekin.

3. Inskripzioa egiterakoan eta prozedura aiseago gauzatzeko, Nafarroako nekazaritza ustiatuegi buruz Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan diren datuak erabiliko dira.

4. Erregistroaren ondorioetarako, funtsezko aldaketak ondoko hauek izanen dira:

a) Nekazaritza jardueran baja ematea.

b) Ustiatuegiaren titulartasun izaten diren aldaketak.

c) Ustiatze elementuetan izaten diren aldaketak.

d) Aldaketak hurrengo hauetan: ustiatuegiaren titulartasun motak, kokapena, lekua eta ustiatuegiaren mugaketa.

e) Kapital sozialean edo erabaki-organoetako ordezkartzearen diren aldaketak. Orobat ustiatuegi elkartuetako kudeaketan eta administrazioan direnak.

f) Ustiatuegiarekin harremana duten langileen aldaketak.

g) Ekoizpenaren orientabidean izaten den aldaketa.

6. artikulua. Inskripzioaren sustatzailea.

1. Nekazaritza ustiatuegi bat Erregistroan inskribatzea ustiatuegiaren titularrak edo haren ordezkariak halaxe eskatuta eginen da.

2. Nekazaritza ustiatuegia behin inskribatuz gero, ustiatuegiaren titularrak nahitaez adierazi beharko dizkio Erregistroari ustiatuegian gertatzen diren funtsezko aldaketak.

7. artikulua. Nahitaezko inskripzioa.

Aurreko artikulua 1. idazatian ezarritakoa gora-behera, nahitaez sartu beharko da Nafarroako Nekazaritza Ustiatuegien Erregistroan, edo, behar bada, sartzea eskatuko da, arauz galdutako dokumentazioa osatua denean, hurrengo hauetarako:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura nekazaritza arloa babesteko Foru Komunitateko Administrazioak ezarriak dituen edo ezarriko dituen laguntzak edo Foru Lege honetan finkatutako onurak eskuratzeko.

b) Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen 3. artikuluko c) letran definitutako xedeak lortzeko

Foru Komunitateko Administrazioak ezar ditzakeen laguntzak jasotzeko.

8. artikulua. Erregistroko liburuak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ustiatuegien Erregistroak liburu hauek beharko ditu:

a) Egunkaria.

b) Lehentasunezko Nekazaritza Ustiatuegien inskripzioarena: bertan idatziko dira izaera hori dutenak, Foru Lege honetan xedatutakoaren arabera. Lehentasunezko ustiatuegien titularrak edo titularkidea nekazari gaztea denean, aipamena eginen da.

c) Nekazaritza Ustiatuegien inskripzioarena: bertan bilduko dira aurreko letrako ezaugarriak ez dituzten nekazaritza ustiatuegiak.

2. Nafarroako Gobernuak arauz zehaztuko du Nafarroako Nekazaritza Ustiatuegien Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua, eta Nafarroako Nekazaritza Ustiatuegien Erregistroa osatzen duten Liburuak errazago betetzeko informatika sistemen aplikazioa, Zuzenbidean onartua, bultzatuko du.

3. Lehentasunezko Nekazaritza Ustiatuegien Liburua mantentzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Departamentu horreketan eta Ekonomi eta Ogasunekoan diren datuak erabili ahalko ditu Erregistrokoak ez diren eskumenen jardueran, beti ere datu pertsonalen tratamenduaren arloan indarra duen legediak diotenari jarraituz.

II. TITULUA

Lehentasunezko ustiatuegiak

9. artikulua. Lehentasunezko ustiatuegiak.

Foru Lege honetako 10. eta 11. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten famili ustiatuegiei, eta, behar denean, ustiatuegi elkartuei, nekazaritzako lehentasunezko ustiatuegi izaera emanen zaie Erregistroan inskribatze ondorioetarako, eta Foru Lege honetan ezarritako onurak jaso ahalko dituzte.

10. artikulua. Famili ustiatuegiak edo titulartzat pertsona fisikoak dituztenak.

1. Lehentasunezko ustiatuegitzat hartzeko, famili ustiatuegiek edo titulartzat pertsona fisikoak dituztenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ustiatuegiak, gutxienez, nekazaritzako lan unitate bat hartu behar du.

b) Nekazaritza ustiatuegitik eskuratzen den lan-unitatearen errenta erreferentziako errentaren

100eko 35 eta 120 artean egotea, Foru Lege honen lehenbiziko xedapen iragankorrean ezarritakoa ukatu gabe.

c) Titularra nagusiki nekazaria edo nekazari profesionala izatea, Foru Lege honen 3. artikuluko 5. eta 6. idazatietan ezarritakoaren arabera.

d) Nekazaritzarako gaitasun aski izatea. Hori zehazteko prestakuntza aktiboa eta lanbidean den esperientzia izanen dira kontuan.

e) Hemezortzi urte beteak izatea eta hirurogeita bost oraindik ez.

f) Gizarte Segurantzako norberaren kontuko langileen Nekazaritzako Araubide Berezian edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emana izatea, bere nekazaritzako jarduera dela medio.

g) Nafarroan helbideratua egotea edo Erkidego Autonomo mugakideen lurraldearen antolamenduari buruzko legeria autonomikoan mugako eskualdetzat jotzen den batean. Helbideratze baldintza honek ezinbesteko kasuak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Etxebizitza Departamentuak onartutako beharra ditu salbuespen.

2. Ezkontza kasuan, ustiategiaren titulartasuna bi ezkontideena bada, lehentasunezko gisa hartzeko, aski izanen da ustiategiak eta ezkontidetako batek artikuluko honetan finkatutako baldintzak betetzea.

3. Nekazaritza ustiategiak jaraunspen-komunitate batenak izan eta haien gainean sei urtetarako bederenik zatiezintasun ituna badute, lehentasunezko ustiategizat hartuko dira, ustiategi horiek eta komunitateko kideren batek, gutxienez, artikuluko honetan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Zatiezintasun aldia lehentasunezko ustiategi deklaratzetik aurrera zenbatuko da.

11. artikulua. Nekazaritzako ustiategi elkartuak.

1. Lehentasunezko ustiategizat hartzeko, nekazaritzako ustiategi elkartuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Sozietate kooperatiboaren, nekazaritzako eraldakuntza sozietatearen, edo sozietate zibilarren, lan sozietatearen edo merkataritzako beste baten forma juridikoa izatea. Nolanahi ere, sozietate zibilen, lan sozietateen edo merkataritzakoen xede bakarra, titulartasuna duten ustiategietan nekazaritzan jardutea izanen da.

b) Sozietate anonimoen kasuan, akzioek izendunak behar dute izan eta kapital sozialik badago,

100eko 50 baino gehiago nagusiki nekazariena edo nekazari profesionalena.

c) Ustiategiak, gutxienez, nekazaritzako lan unitate bat hartu behar du eta bertan eskuratzen den lan-unitatearen errenta erreferentziako errentaren 100eko 35 eta 120 artean egon.

d) Kideen 100eko 50 gutxienez nekazari profesionalak izatea edo nagusiki nekazariak, aurreko artikuluko 1. idazatiaren f) letran aipatutako baldintza betetzen dutenak. Hori ez bada, kudeaketaren eta administrazioaren ardura duten kideetatik bi herenak lanari eman beharreko denbora eta nekazaritzako lan ustiategiko errenten jatorriari dagokionez, nagusiki nekazariari edo nekazari profesionalari eskatzen zaizkion baldintzak betetzea, baita lehentasunezko famili ustiategietako titularrei edo ustiategi horietako titular diren pertsona fisikoei, aurreko artikuluko 1. idazatian aipatu direnei, eskatzen zaizkien baldintzak ere. Era berean, ustiategi horretako lanaren bi heren, gutxienez, lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten kideek egin behar dute.

2. Lehentasunezko ustiategi elkartutzat hartuko da, baita ere, ustiategi baten bi heren, gutxienez, muga bakarraren barrenean dituen ustiategia, baldin kide bakar batek ez badu ustiategiaren azaleraren 100eko 40 baino gehiago. Ustiategi hauetan kide batek bederenik nagusiki nekazari behar du eta lan horretara emana. Horretaz gain, famili ustiategietako titularrei edo nekazaritza ustiategietako titular diren pertsona fisikoei eskatzen zaizkien baldintzak, 10. artikuluan aipatu direnak, bete beharko dituzte.

3. Halaber, lehentasunezko nekazaritza ustiategizat hartuko da titularkide nekazari gazte bat duena, baldin ustiategi haietako titularrei eskatzen zaizkien baldintzak pertsonalki betetzen baditu.

12. artikulua. Inskripzioaren egiaztagiria.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, interesatuak halaxe eskatuta, ustiategia Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan sartu izanaren egiaztagiria luzatuko du.

2. Egiaztagiria beharrezko izanen da Foru Lege honetan finkatutako onurak eskuratzeko, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Aurrekontu Orokorren kargura nekazaritza alorra babesteko ezarri edo ezarriko dituen laguntzak jasotzeko ere.

13. artikulua. Nekazari gazteak.

1. Lehentasunezkotzat joko da nekazari gazteen lehenbiziko instalazioa, Nekazaritzako Finan-

tzazioari buruzko lege lerruneko xedapenen Testu Birbildua onetsi zuen apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegileari eta hura garatu duten araei jarraikiz, nekazaria lehentasunezko nekazaritza ustiategi bateko titularra edo titularkidea bada.

2. Era berean 14. artikulua 1. idazatiko d) letrak aipatzen dituen kuoten asignazioan eta ekoizpen eskubideetan lehentasuna izanen dute gainerako lehentasunezko ustiategiaren ondoan, lehenbiziko instalazioarekin lehentasunezko ustiategietako titularrak edo titularkideak diren gazteek.

III. TITULUA Onurak

14. artikulua. Lehentasunezko egoerak.

1. Lehentasunezko ustiategietako titularrek lehentasunezko tratua izanen dute honako kasuetan:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ezarrita dagoen edo ezar daitekeen edozein laguntzatan.

b) Fondo publikoekin diruz lagundutako nekazaritzako aseguruaren kontratazioetan.

c) Nekazaritzako ekoizpenen antolamendurako programetan edo berariazko lurralde eremukoetan sartutako laguntzen kasuan, beti ere hori bateragarria baldin bada programa horien helburuekin.

d) Merkatuko erakunde komun ezberdinen arautegi erregulatzailea aplikatu edo garatzearen ondorioz eraturiko kuota edo eskubideen esleipenean, beti ere bat etorritik arau horietan horretarako ezarritako baldintzekin, hori guztia, esleitzen diren kuota edo eskubideak, osotara edo zati batean, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura eskuratzen direnean eta Foru Komunitateko Administrazioari dagokionean horiek esleitzea.

e) Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen 3. artikulua c) letran zehazturiko helburuak lortzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarrita dituen edo ezar ditzakeen laguntzetan edo Foru Lege horren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusia dagoen lur fondoan sartzearen kasuan.

2. Aipatu diren lehentasunezko egoerek baldintza bat izanen dute, alegia, ustiategiak ezin izanen duela lehentasunezko izaera galdu aurreko atalean azalduko neurriak aplikatzeagatik; gainera, neurri hauek aplikatzearen ondorioz lehentasunezko izaera lortzen duten ustiategietako titularrak ere horietaz baliatu ahalko dira.

15. artikulua. Maileguak.

Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga arautzen duen 1981eko martxoaren 17ko Foru Arauaren 22. artikuluko 2. idazatiko aipatzen duen "Egintza Juridiko Dokumentatuak" kontzeptutik salbuetsiak egonez dira honako hauek: Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako mailegu hipotekarioen eratzea, aldatzea edo kitzatzea dokumentatzen duten eskritura publikoen lehenbiziko kopiak, beti ere mailegu horiek ematen baldin bazaizkie lehentasunezko ustiategietako titularrei hobekuntza planak egiteko, lehentasunezko ustiategiak ez izan arren mailegu horien bidez finantzaturiko eskurapenei esker izaera hori lortzen duten ustiategietako titularrei, eta nekazari gazteei edo soldatapekoei nekazaritzako ustiategi bat lehen aldiz instalatze-ko aukera izan dezaten.

16. artikulua. Ustiategia osorik eskualdatzea.

1. Nekazaritzako ustiategi oso baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, beti ere hori egiten bada lehentasunezkoa den edo eskurapenaren ondorioz izaera hori lortzen duen beste ustiategi bateko titularren alde edo halako titular bat izanik egilea, orduan, eskualdatze edo eskuratze horrek 100eko 90eko murrizketa izanen du ustiategiaren edo hori osatzen duten elementuen eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergaren zerga-oinarrian, hori guztia, baldin eta, eskualdatzearen ondorioz, eskuratzailearen ustiategiak duen lehentasunezko izaera aldatzen ez bada. Ustiategiaren eskualdaketa eskritura publiko bidez egin behar da.

Murrizketa 100eko 100era iritsiko da, baldin eta ezkontide superstitiak ustiategiarekin jarraitzen badu edo eskuratzailea nekazari gaztea edo soldatapekoa bada, eta bi kasuetan, eskualdaketa edo eskuratzea lehenbiziko instalazioaren ondoko bost urteen barnean egiten bada.

Idazati honetako lehen lerroaldean aipatu ondorioetarako, nekazaritzako ustiategi osoaren eskualdaketa egiten dela ulertuko da, baita etxebizitza kanpoan uzten denean ere.

2. Murrizketa gauzatu ahal izateko, eskuratzearen eskritura publikoan eta Jabetza Erregistroan, baldin eta eskualdaturiko finkak erregistro horretan inskribatuta bazeuden, azaldu beharko da: eskuraturiko finkak hurrengo bost urteko epean besterendu, errentan eman edo lagatzen badira, aldezturik honakoen justifikazioa egin beharko dela: dagokion zerga ordaindu izanarena, edo egindako murrizketaren ondorioz ordaindu gabe

gelditutako horren zatiarena, bai eta berandutze interesena ere, salbuespen izanik ezinbesteko kasuak, heriotza, elbarritasuna edo titularrak jarduera uztea jubilatuko delako bai adinarengatik, bai arauz ezarrita dagoen beste edozein arrazoiengatik.

17. artikulua. Muga bakar baten barneko ustiategia osatzeko eskualdaketa.

1. Landa finken erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, baldin eta hori egiten bada lehentasunezko ustiategi bat eratzeko asmoz muga bakar baten barnean horretarako beharrezkoa den azalera biltzeko, orduan, eskualdatze edo eskuratze hori salbuetsia egonen da eskualdatzeen edo eskuratzeen gaineko zergatik, hori guztia, baldin eta eskuratzeari buruzko agiri publikoan azaltzen bada egindakoaren ondorioz geratzen den finka ezin izanen dela zatitu bost urteko epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

2. Eskualdaketa edo eskuratzearen gaineko zergari dagokion zerga-oinarrian 100eko 50eko murrizketa aplikatuko da honako kasuan: nekazaritzako ustiategien titularrek lurren eskualdatzea edo eskuratzea egiten dutenean muga bakar baten barnean biltzeko ustiategi bateko azalaren 100eko 50a gutxienez, beti ere horri dagokion lan-unitatearen errenta Foru Lege honek ezarritako mugen barnean baldin badago, hori guztia, lehentasunezko ustiategiatarako zerga onur ematearen ondorioetarako. Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, arestiko idazatian zatiezintasunaren eta eskuratzeari buruzko agiri publikoaren gainean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

18. artikulua. Ustiategi eta landa finketako zati batzuen eskualdaketa.

1. Landa finka baten edo nekazaritzako ustiategi bateko zati baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, beti ere hori egiten bada eskurapenaren ondorioz lehentasun izaera galtzen ez duen edo lortzen duen lehentasunezko ustiategi bateko titularraren alde, orduan, 100eko 75eko murrizketa aplikatuko da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergaren zerga-oinarrian.

2. Murrizketari portzentaiaren arabera hamar puntu gehituko zaizkio eskuratzailerak soldatapeko nekazaria denean, eta 100eko 100era iritsiko da nekazari gaztea izanez gero eta, bi kasuetan, eskualdaketa edo eskuratzea lehenbizi-

ko instalazioaren ondoko bost urteen barnean egiten bada.

3. Onura aplikatu ahal izateko, eskualdaketa eskritura publiko bidez egin beharko da, eta 16. artikuluko 2. idazatian ezarritakoa aplikatuko da.

4. Baldin eta 1. idazatiak aipatzen dituen eskualdaketa edo eskuratzearen bidez, Nekazaritza Politika Amankomunetik heldu diren eskubideak edo kuotak ere batera eskualdatzen edo eskuratzen badira, artikuluko 1 eta 2. idazatietan ezartzen diren onurak aplikatuko dira.

19. artikulua. Landa finken truketzea.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak landa finken gainean baimentzen dituen borondatezko trukeak salbuetsiak egonen dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako "kostubidezko ondare eskualdaketak" kontzeptutik edo Balio Erantsiaren gaineko Zergatik, beti ere, trukea egiten dutenetako bat, gutxienez, lehentasunezko nekazaritza ustiategi bateko titularra baldin bada eta trukeak –zeina eskritura publiko bidez egin behar baita– helburu hauetakoren bat baldin badu:

a) Lurzati kokatuak deusezteak; horrelakoak dira nekazaritzako erreforma eta garapenari buruzko legeria orokorrean izaera hori dutenak.

b) Bide menpekotzak kentzea.

c) Nekazaritzako ustiategiak berregituratzea; kasu honetan sartzen dira lurzati berrantolamendu pribatu bat gauzatzeko egin behar diren truke anizkoitzak.

d) Trukearen bidez lorturiko finkek ustiategiaren titularraren etxebizitza kokatuta dagoen fincara hurbiltzea, baldin eta finka horren mugakideak diren beste finka batzuekin trukatzeko badira, edo finkak hurbiltzea ustiategiaren azalera gehiena osatzen duten finken mugakideetara.

20. artikulua. Erregistroan inskribatzea.

Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako "kostubidezko ondare eskualdaketak" kontzeptuko zerga-oinarrian 100eko 90eko murrizketa izanen dute honakoak: jabetza espedienteek, ezaguntasun aktek eta lehentasunezko ustiategi batean integraturiko finkek edo halako ustiategi bat osatu ahal izateko integratzen direnak Jabetza Erregistroan inmatrikulatze edo etendako erregistro-traktuari berretiketo erabiltzen den beste edozein prozedurak.

Murrizketa hau 100eko 100era iritsiko da aipatu finken titularra nekazari gaztea denean.

21. artikulua. Lehentasunezko ustiategi elkar-tuendako zerga onura bereziak.

1. Amortizazio askatasuna izanen dute neka-zaritzako jardueri loturiko higiezin material eta inmaterialen elementuek, baldin eta lehentasu-nezko ustiategi izaera lortzen den egunaren ondo-ko lehen bost urteetan eskuratuak badira.

2. Ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen ara-bera bereziki babesturiko nekazaritza kooperatiba gisa eratuta dauden lehentasunezko ustiategi elkartuen kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren barnean kuota osoaren hobaria, Zerga horren 28.2 artikuluan aurreikusia, 100eko 80koa izanen da.

22. artikulua. Nekazari gazteendako edo sol-datapeko nekazariendako zerga onura bereziak.

Foru Lege honen 15, 16 eta 18. artikuluetan aurreikusitako zerga onurez gain, nekazari gazte-ek edo soldatapeko nekazariak beste hauek ere izanen dituzte:

1. Nekazaritzako ustiategi baten edo horren zati baten zein landa finka baten erabateko jabe-tza edo bizi bitarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskura-tuz gero, beti ere hori egiten bada lehentasunezko ustiategi bat lehen aldiz instalatzen duen nekazari gazte edo soldatapeko nekazari baten alde, orduan, salbuetsia egonen da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergatik.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zer-gan jarduerako etekin garbia zenbatespen objek-tiboaren metodoa erabiliz zehazten duten nekazari gazteek edo soldatapeko nekazariak, beren neka-zaritzako jarduerari dagokiona 100eko 25ean murriz-tu ahalko dute, lehentasunezko ustiategi bateko titular gisa lehen aldiz instalatu ondoko bost urtee-tan itxitako zergaldietan, baldin eta ustiategia hobetzeko plan bat egin izana egiaztatzen badute. Arestian aipatu instalazioa Foru Lege honen 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egina izan-en da.

Aurreko lerroaldean aipaturiko etekin garbia, zenbatespen objektiboaren metodoari buruzko arauak aplikatzearen ondoriozkoa izanen da soil-lik.

Idazati honetan aurreikusitako murrizketa zeinu, indize edo moduluen modalitatean aplikatu-ko da nekazaritzako jarduerari dagokion etekin garbiaren gainean, eta koefizienteen modalitate-an, berriz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen ekainaren 8ko 209/1992 Foru Dekretuko 28. artikulua

aipaturiko gastuak kendu eta gero; murrizketa hau bateraezina da aipatu artikuluan zerbitzuak ematearen arloko merkataritza jardueretarako, neka-zaritzako, abeltzaintza, oihan-lan eta arrantzakoeta-rako oro har ezarrita dagoenarekin.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Foru Lege honen 15. artikulutik 22.era bitartekoetan aurreikusiak dauden zerga onurak honako irizpideei jarraikiz baizik ez dira aplikatuko: Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikuluan azal-tzen den Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako irizpi-deak.

Bigarrena. Nekazaritzako Ustiategiak gaurko-tzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 16. artikuluko 1. idazatian xedatutakoari jarraikiz, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerio-an dagoen Lehentasunezko Ustiategien Katalogo Orokorrean sartzearren, aldian-aldian Ministerioari jakinaraziko zaio Nafarroan lehentasunezko moduan sailkatu diren nekazaritza ustiategiak eta horien aldaketak zeintzuk diren.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa. 1998ko abenduaren 31 arte nekazaritzako famili ustiategi hauek lehentasu-nezko izaera izan ahalko dute: lan-unitatearen errenta erreferentziako errentaren 100eko 30etik gorakoa eta 100eko 120tik beherakoa izanik, nekazaritza laneko unitate erdia, gutxienez, oku-patzeko aukera dutenek, Foru Lege honen 10. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak bete-tzeaz gainera.

Bigarrena. Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo bost urteko epean azaltzen diren onda-reko gehikuntza garbiak -landa finkak edo neka-zaritzako ustiategiak eskualdatzearen ondorioz sortuak-, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zenbatespen objektiboaren metodoa apli-katzearen ondoriozko etekin garbian sartuko dira, arau ezarritako zenbatekoarekin eta, beti ere, aktiboak subjektu pasiboaren ondarean bost urtez, gutxienez, egon badira.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da eskualdaturiko landa finkak edo nekazaritzako ustiategiak esku-ratzaileak lehentasunezko ustiategiak eratu edo finkatzeko erabiltzea, edo Administrazio Publikoek eskuratzeko lur bankuetan edo antzeko organoetan sartzeko, edo naturguneak babesteko arrazoien-gatik.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez garatuko ditu bai eskualdaketa egiten dutenek bai eskuratzailleek bete behar dituzten baldintzak, Xedapen honetan ezarritakoaren aplikaziorako.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Baimena eman zaio Nafarroako Gobernuari, Foru Lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Adizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Hala ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren arloko zerga onurak aplikatuko zaizkie Foru Lege honek indarra hartu ondoren amaitzen diren zergaldiei.

Hirugarrena. Indarrik gabe gelditu dira Foru Lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituen

ATZERA BIDALITAKO OSOAREKIKO EMENDAKINA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1997ko abenduaren 10ean egindako bileran, Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituen Foru Lege

proiektuari aurkezturiko osoarekiko emendakina atzera bidali dutela jakitun dagoela adierazi zuen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituen

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakina baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Toki Administrazio Batzordera igorri da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Legearen proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakina baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igorri da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena, Estatuko Gobernua premiatzen duena Lankidetzari buruzko Lege proiektu bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, "Estatuko Gobernua Lankidetzari buruzko Lege proiektu bat egin dezan premiatzen duen Ebazpena", 1997ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Estatuko Gobernua premiatzen duena Lankidetzari buruzko Lege proiektu bat egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Garapen Lankidetzari buruzko Lege proiektuari hurrengo helburu nagusiak gehitu diezazkion:

1. Munduko pobrezia eta haren arrazoiak aurkako borroka, giza garapen eramangarria sustatuz.
2. Garapenaren lankidetzarako politikari autonomia osoa, politika hori baldintza dezakeen kanpo-, merkataritza- eta defentsa-politikako arrazoi oro baztertuz.

Mozioa, Nafarroako Gobernuak hilabeteko epean Nafarroako Toki Administrazioaren egoerari buruzko txosten bat igor dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1997ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Nafarroako Gobernuak hilabeteko epean Nafarroako Toki Administrazioaren egoerari buruzko txosten bat igor dezan aurkeztutako mozioa baztertu zuen.

Mozio hori 1997ko azaroaren 28ko 82 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa, “Reforma de las Humanidades” deitutako Dekretua gaitzesten duena

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1997ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa, “Reforma de las Humanidades” deitutako Dekretua gaitzesten duena baztertu zuen. Mozio hori 1997ko azaroa-

ren 28ko 82 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Iruñeko irteeretan Tute- ra markatzen duten seinaleak jar ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1997ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Iruñeko irteeretan Tute-
ra markatzen duten seinaleak jar ditzan, baztertu zuen. Mozio hori 1997ko aben-

duaren 12ko 84 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--